

3

eitb



Gure ametsak betetzea da hau!

2018ko abendua



eitb



CaixaBank

IBAIZABAL

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

amets egiteko liburuak



IRAKURRIZ bizi!

ibaizabal



AURKIBIDEA

HIRU3 Gabonetan murgildu da !

4.
orr

KIDE GUNEA

8.
orr

'3TXULO' eta '3ZPA4', gure ametsak betetzea da hau !

12.
orr

Zinegabonak

18.
orr

Olentzero

20.
orr

Kaixo, lagun:

2018. urtea modu paregabean joan da HIRU3 komunitateko kideontzat, eta agurtu ere modu horretan egingo dugu, Gabon giroan zinema, euskara, 3TXULOtarrak, '3ZPA4' eta HIRU3 komunitateko kide guztiok batuta. Zinegabonak ekimenak hartuko gaitu aurten ere, eta '3TXULO'k Gabonetako ikuskizun berezia eskainiko du Bilbon abenduaren 23an. Primeran pasatuko dugu denok elkarrekin!

Aurten ere, urtero bezala, **Olentzero** EiTBen Bilboko egoitzan egongo da, **abenduaren 21ean, 16:00etatik aurrera**. Berarekin argazkiak egiteaz gain, zure eskutitza eman ahalko diozu. Oraindik ez duzula idatzi? Bada, jo HIRU3ren Olentzeroren atarira eta idatzi zure eskutitza!

Bitartean, gozatu aldizkari honetan jaso ditugun argazki eta ekimen guztiekin.

Izan HIRU3!

Hiru3 aldizkaria
EiTB
Basurtuko Kaputxinoak, 2
48013 Bilbo
94 656 30 00

HIRU3 komunitatea
94 656 31 22
hiru3@eitb.eus
www.eitb.eus/hiru3/

Edizio arduraduna: EiTB

Kolaboratzailea:
Ibaizabal argitaletxea

Diseinua, ilustrazioa eta
digitalizazioa: eitb.eus



 eitb

HIRU3 Gabonetan murgildu da!

ZINEGABONAK

ekimenak aurten modu berezian hartuko gaitu, pelikulak euskaraz ikusteko aukera eskaintzeaz gain, **Stop motion** izeneko tailerra ere ekarriko baitigu.

EiTBren **Bilboko egoitzan** izango da, abenduaren 26an tailerra, eta 27an, aldiz, **'Paddington 2'** filma ikusiko dugu.

'3TXULOK'

"Berriro Gabonak"

ikuskizun berezia eskainiko du Bilbon, **Euskalduna Jauregia**n, abenduaren 23an.

Xbel, 2ttor, 4ra eta **izeba Kattalin** gure lagunek sorpresaz betetako ikuskizuna ekarriko digute, eta '3TXULO'ko kantak abestuko dituzte.

Olentzero

EiTBren Bilboko egoitzan izango dugu **abenduaren 21ean**, guztion eskutitzak jaso eta berarekin argazkia ateratzeko.



PortAventura parkerako sarrera doan!

EiTBk eta **Caixabank**ek elkarrekin duten hitzarmenari esker, **Hiru3**ko kideek abantailak dituzte, PortAventura Parkera joateko sarrera, esaterako.

Kideek jasotzen duten gutunean azaltzen den bezala, kupoi hori eta **Izar Libreta** hartu eta gertuen duzuen CaixaBanken bulegora joan behar duzue. Bulegoan, sarreraren baliokidea den ziurtagiria emango dizuete.

Helduentzako sarrera bat erosita, jaso umearentzako sarrera bat doan, eta parkean **egun zoragarria igaro!**



ENTRADA NIÑO GRATIS

Por Navidad
del 24 de noviembre al 6 de enero

Cupón canjeable en las taquillas de PortAventura Park por una entrada junior de un día de acceso a dicho parque, válida solo para el mismo día en que se canjee el cupón, y previa compra de una entrada tipo "Adulto 1 día" a PortAventura Park en las mencionadas taquillas. Cupón válido del 23/03/18 al 06/02/19 (según calendario de apertura de PortAventura Park). No válido para otros parques e instalaciones de PortAventura World. No se admitirán cupones rotos, emmendados o fotocopiados. Oferta no acumulable a otras ofertas y/o promociones. A canjear un solo cupón por entrada y persona. No canjeable por su valor económico. Prohibida su venta. Para validar la promoción es imprescindible presentar la libreta de IzarLibreta o Libreta Externa HIRU3.
Galaxy: 1162

*Abierta solo sábados y domingos, excepto del 6/12/18 al 9/12/18 y del 22/12/18 al 6/1/19 que está abierta cada día.

PortAventura parkera joateko sarrera bat PortAventura World, mundu bete esperientzia

- 1** Hartu gutuna, eta zoaz gertuen duzun CaixaBanken bulegora.
- 2** CaixaBanken bulegoan, PortAventura parkerako sarrera bat emango dizute gutuna eta Izar Libreta aurkeztuta. Libretarik ez baduzu, bertan ireki **5 euroko gutxieneko diru-sarrera** eginda.
- 3** PortAventura parkeko leihatilan egonda, **CaixaBanken** eman dizuten sarrera eta **Izar Libreta**, eta trukatu baliiodun sarrera batengatik.

Kupoirik ez baduzu jaso, eta parkera joateko asmoa baduzu, jarri gurekin harremanetan **hiru3@eitb.eus** helbidera.



CaixaBank

IZAN EITB JAI A



HIRU3 EitBko haur komunitateak egun osoko **jai erraldoia** egin zuen urriaren 6an Donostian, Anoetako Belodromoan.



Egun osoan zehar, hainbat ekimen, tailer, ikuskizun eta musika emanaldi hartu zituen jaiak. Agertoki nagusian programazio paregabea izan genuen: **Ene Kantak, 'Alibaba eta 40 lapurrak' antzezlan, '3txulo', '3zpa4' eta 'Go!azen'.**



IZAN EITB JAIA



Gastronomia, euskara eta ingurumena modu berezian lantzeko guneak izan genituen, eta baita aurpegia margotzeko tailerra, puzgarriak, ludoteka, **fanzone** zein **EiTB Studio** espazioak.

HIRU3 komunitateak ere bere txokoa izan zuen, eta kideek **Hiru3ko eskumuturrekoa eta edalontzi berrerabilgarria** jaso zuten eta zozketa ugari izan zituzten egunean zehar.



Gainera, HIRU3 kideon artean sari potoloaren zozketa egin zen: familian goatzeko asteburu baterako bidaia!

3

eitb



IZAN hiru kide gunea



HIRU3 klubeko kide zarelako, hainbat abantaila dituzu eskura, eta baita doako sarrerak ere. Honako gune hauetara joateko sarrera bat oparituko dizugu, helduentzako sarrera bat erosiz gero.



**EUREKA ZIENTZIA
MUSEOA**



KARPIN ABENTURA




**URDAIBAI BIRD
CENTER**



HONTZA MUSEOA



**BILBOKO ITSASADARRA
ITSAS MUSEOA**



POZALAGUAKO Koba

Aurten, gainera, sari paregabea izan dugu kideon artean zozketatzeko: **familia osoarentzako astebeteko itsas bidaia**. Maren Urkizuk irabazi zuen, eta zoragarri ibili zen familiarekin bidaian!



Badakizu, HIRU3ko kide egitea oso erraza da; online egin dezakezu webgunearen bidez. Esan lagunei eta gozatu abantaila guztiekin. Izan Hiru3!



Kaixo, lagunok!

HIRU3 klubak eta Bizkaiko Foru Aldundiak museoak ezagutzeko modu paregabea eman nahi diete HIRU3ko kideei. Izan ere, Bizkaiko museoek hurrei zuzendutako eskaintza zabala izaten dute urte osoan zehar. Hori horrela, HIRU3ko kideek hainbat museotan tailerrak egiteko aukera izango dute, eta '3TXULO' saioko lagunak museoetako kontuak gerturatu dizkigute aurten; La Encartada Fabrika museoak, Arkeologi Museoak eta Arrantzaleen Museoak, esaterako.



Arkeologi Museoa



La Encartada Fabrika-Museoa



Arrantzaleen Museoa



3ZPA4

"3ZPA4" saio berria abiatu dugu aurten ETB3n, musika taldea osatzeko nahia duen laukote gaztea protagonista: **Jon (Ander Elordui), Maider (Maitane Lopategi), Amets (Ekain Ibarguren) eta Izaro (Mikele Arizkorreta)**

Telebistatik oholtzarako jauzia ere eman dute jada '3ZPA4' saioko kideek, eta batetik bestera musika emanaldia eskaintzen dabilta.

Gainera, '3zpa4' saioko kamisetak eta CDa ere salgai daude jada. Eskuratu zurea!





Ba al dakizu zinemagintzan zer esaten zaion Foley egitea? Eta stop motion teknika zer den?

Parte hartu Zineuskadiren tailerretan!



2018an
euskaraz
estreinatutako
filmak

'3TXULO', zorion betean!

Datorren urterako 3txulotarren desioa, desiorik handiena: zuek zoriontsu izatea. Gure abenturak, musika, dantzak, joko, barre eta maitasuna zuekin partekatzen jarraitzea ere gustatuko litzaiguke, noski.



2TTORREN DESIOA



Primeran pasa dezazuela, jolasten, barre egiten, maitatzen... A! Eta ez ahaztu lagunak eta senitartekoak. Parteka ezazue beraiekin zuen bizipoza!

4RAREN DESIOA



Urte berria zorionez gainezka etor dadila. Ahalegin guztiak egin itzazue pozik bizitzeko. Nik ere ahalegin guztiak egingo ditut pozik bizitzeko... eta barazkiak jateko. 2019an barazkiak jaten hasiko naiz, pixka bat bada ere.

IZEBA KATTALINEN DESIOA



Urte ezin hobea izan dadin, zaindu ondo zeuen burua: egoki jan, erruz deskantsatu, barre asko egin eta... zer gehiago zoriontsu izateko? A, bai, eskatu ordainsaria senitartekoei. Edo, ez, hori ez. Tira, bai, hori ere bai.

XBELEN DESIOA



2019a urte ezin hobea izan dadila guztiontzat. Natura apurtxo bat gehiago zainduz mundu eta inguru hobea lor dezagun.

'3zpa4', gure ametsak betetzea da hau!

'3zpa4' taldekoen izenean, zorionak eta urte berri on!

Egon etxekeekin goxo, jan gozo eta eman hegoak zuen ametsei!

Izaro

"Urte berrian Jonekin daukadan harremanak ondo jarraitzea nahi dut. Baina ez hori bakarrik. Lauron artean erronka berriei aurre egitea ere desira dut. Datorrena datorrela, beti gogoz, pozik eta irribarre batekin! Eta nork daki? Agian udan brasilerira itzuliko naiz. Nire denbora behar dutenei eskaintzera".



Jon

"Urte berria urte zaharra amaitu den bezala hasi nahi nuke. Izaro eta '3zpa4'ko kideak ondoan ditudala. Dantzan jarraitu nahi dut, egunetik egunera ikasten eta hobetzen. Gurasoei ere onena opa diet, eta denok beti ondo moldatzea. Ea Gorkari ere bisita egiten diodan Polonian."



Amets

"Urte berriari zer eskatzen diodan? Garbi daukat! Ikasketekin ondo jarraitzea eta, nola ez, zirkura itzultzea! Maitasunari ere ez nioke atea itxi nahi. Pertsona berezi hori ezagutzea espero dut. Baina presarik gabe, e? Presak beti dira txarrak! Eta onena, nire lagunak!"

Maider

"Aitite Joakin galtzea gogorra izan da, baina beti egongo da nirekin. Urte berrian denok ondo egotea nahi nuke; nire benetako lagunak alboan edukitzea eta elkarrekin harreman osasuntsu bat eraikitzea. Munduko lagunik onenak dauzkatzat! Beraiei esker, nire ametsa bete da!"

Zure ikastetxea, topera!



'3TXULO' saioak hainbat herritako eskolak bisitatu ditu aurten, eta "**Topera**" izeneko atalean jaso ditugu eskoletan erakutsi dizkiguzuen dantza eta abesti dotoreak.


Gainera, **liburu gomendioak** ere egin dizkiguzue aurten, irakurzale finak zaretela argi utzita!



ZORIONAK

Aurten ere, haurren parte hartzea modu berezian bultzatu da '3TXULO' saioan; hartara, umeen urtebetetzea zoriontzeko argazkiak bidaltzeko aukera izan dute.

Halaber, oporretako zein inauterietako argazkiak ere bidaltzeko aukera izanik, argazki ugari jaso ditugu. Argi gelditu da primeran ibili zaretela guztiok ere!



IRAKURKETA TXOKOA

Dragoi aita-semeak

Egilea: Alexandre Lacroix

Marrazkilaria: Ronan Badel

Bilduma: Zuhaitz-etxeke istorioak

Orrialdeak: 32

Adina: 6 urtetik aurrera

Laburpena:

Aitari benetako dragoia dela frogatzeko, Strokurrek auzoko herriko etxe batzuk erre behar ditu. Tradizioak hala agintzen du!

Baina Strokur ez dago oso pozik. Nekez botatzen du sua, eta garrantzi gabeko gauzaren bat egiteko soil-soilik, ahoratzeko barraskiloren bate do beldaren bat erretzeko, adibidez.

Jakingo ote du bere milurteko familia zaharrari ohore egiten?



Olatuak zaintzen

Egilea: Ana Urkiza

Marrazkilaria: Manu Ortega

Bilduma: Txirrista

Orrialdeak: 24

Adina: 6 urtetik aurrera

Laburpena:

Libe hondartzan galdu eta Iban, larri eta estu, haren bila hasi da. Bazenekien urrutira joan gabe ere abenturarik handienak bizi daitezkeela?



Vlad, munduko banpirotxo baldarrena

Egilea: Anna Wilson

Marrazkilaria: Kathryn Durst

Bilduma: Vlad, munduko banpirotxo baldarrena

Orrialdeak: 160

Adina: 8 urtetik aurrera

Laburpena:

Vladen gurasoak kezkatuta daude semeak oso nota txarrak atera dituelako, eta hura Dorre Beltzera zigorturik bidaltzeko asmoa dute. Vladen ametsa, hala ere, gizakien ikastetxe batera joatea da, eta hori lortzeko gogotik saiatuko da.



Sekretuen hamaika zaporeak

Egilea: Oihane Fernandez

Marrazkilaria: Ainara Azpiazu

Bilduma: Gaztetxo!

Orrialdeak: 104

Adina: 10 urtetik aurrera

Laburpena:

Hainbat sekretu mota daude: handiak, txikiak, koloredunak edota zaporedunak; eta guztiok gordetzen dugu baten bat gure barnean.

Istorio honetako protagonistak sekretu handi bat du kutxa batean giltzapeturik, eta oraindik ez daki zer zapore duen sekretu honek. Gai izango ote da horren zaporea aurkitzeko? Ausartuko ote da bere sekretua kutxatik ateratzera?



Betidanik
haur eta gazte
literaturan

murgilduta!

ibaizabal
www.ibaizabal.com

ETB3ko haur edukiak, nahi duzunean ikusgai!

Hainbat marrazki bizidun estreinatu ditugu aurten ETB3n, euskarazko eduki bilduma ugarituz: 'Rita eta Kokodriloa', 'Pin Kodea', 'Zuhaitz etxeke istorioak', 'Cam & Leon', 'Spirit zaldi askea', 'Rocket Monkeys', etab.



Bada, **HIRU3 haur edukien aplikazioan** nahi duzunean eta nahi duzun lekuan dituzu ikusgai euskarazko marrazki bizidun horiek guztiak zein '3TXULO', '3ZPA4' eta 'Go!azen' saioak, mugikorrean zein tabletean.

Gainera, ETB3 kateak Internetera konektatutako telebista zerbitzua ere badu, marrazki bizidunak euskaraz nahi duzunean ikusteko.



Gozatu marrazki bizidunak euskaraz, nonahi eta noiznahi!



Elkarrekin

Jaitsi edo eguneratu HIRU3ren app-a eta **Guraso Alertak** jaso



eitb



Super PlayBag

Sakatu play, eta eraman zure musika noranahi!



Konektatu zure musika **Super PlayBagera**¹, eta markatu erritmoa, zoazen tokira zoazela. **HIRU3 Izar Libretarekin** eskuratu dezakezu.

Oraindik ez baduzu zure Hiru3 Izar Libreta, **ekarri zure NANA CaixaBanken edozein bulegotara, eta bat irekiko dizugu.**

Zeren zain zaude zure musika beti zurekin eramateko?

Kontsultatu sustapenaren baldintzak CaixaBanken edozein bulegotan edo www.CaixaBank.es webgunean.

1. Sustapen honen izakinak amaitu arte (7.000 ale) bako du. Super PlayBag bat HIRU3 Izar Libreta baten titularr bakoitzeko, gutxienez 40 € sartuta (libreta berria edo lehendik irekita zeudenak). Super PlayBag hau gauzatzeko ordainsartat hartzen da, eta konturako diru-sarearen mende dago, indarrean dauden arau fiskalen arabera. Ez dago eskudutako ordainsaririk. HIRU3 Izar Libreta 13 urte edo gutxiago dutenek soilik eska dezakete. NRI: 2628-2018/09681.

ZINEGABONAK

Urtea ezin hobeto bukatzeko, EITBk eta Zineuskadik **Zinegabonak** ekimena jarriko dute martxan, umeei zinemaz goza dezaten euskaraz. Gainera, aurten modu berezian dator Zinegabonak, izan ere, pelikulak euskaraz ikusteko aukeraz gain, **Stop Motion** ere ekarriko digu ekimenak.



EiTBren Bilboko egoitzan abenduaren 26an izango da **Stop motion** tailerra egiteko aukera, eta, ondoren, abenduaren 27an, '**Paddington 2**' pelikula ikusi ahal izango da, doan; emanaldiak 11:30ean izango dira.

Gainera, asteburuan, abenduaren 29an eta 30ean, Euskal Herriko zenbait zinema-aretotan euskarazko filmak izango dituzte ikusgai umeei, euro baten truke.

EiTBn izango diren pelikuletarako **gonbidapenak lortzeko**, HIRU3ren webgunean eman behar duzue izena. Sartu atarian eta hantxe jasoko duzue informazio guztia.

Gozatu zinemaz euskaraz!



2019

3

eitb

URTARRILA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
1	2	3	4	5	1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

ABUZTUA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IRAILA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



3

txulo

3zpat

OLENTZERO

Olentzeroren webgune berezia prest dugu jada! Olentzerori eta Errege Magoei eskutitzak idazteko aukera izateaz gain, primeran pasatuko duzue bertan aurkituko dituzuen edukiekin: Gabonetako kanta eta ipuinak, Olentzerorekin lotutako jolas eta eskulanak, filmak...

Gainera, aurten ere Olentzerorekin **WhatsApp bidez hitz egiteko** aukera izango dugu.



Halaber, urtero bezala, Olentzero etorriko da EiTbren Bilboko egoitzara. **Abenduaren 21ean** egongo da gure artean, **16:00etatik aurrera**, eta zuen eskutitzak emateaz gain, berarekin argazkiak egin ahal izango dituzue.

Horra, horra...

Zorionak eta urte berri on!